

opusdei.org

**Nafar Ondarearen
eta Artearen
Katedra Nafarroako
Gobernuaren
laguntzarekin,
antzinako
Nafarroako jaiotzei
buruzko liburu bat
argitaratu du**

Bere egilea, Ricardo Fernández
Gracia, Nafarroako
Unibertsitateko irakaslea, XII
eta XIX arteko Nafarroako
jaiotzak ikertu ditu

Liburua Jesus María Omeñacari eskainita dago, Arte Ederren Akademiakoa Nafarroakoa arteren zaintze eta promozio ekimenengatik. Liburuaren idazlea, Ricardo Fernández Gracia, Katedrako irakasle eta zuzendariordea hau “Eguberria arteetan” zikloan aurkeztu zuen.

Belenes históricos en Navarra.

Figuras para la memoria orain arte bildutako materiala da- adierazten zuen irakasleak- baina oraindik lan handia dago egiteko. Alde batetik herrietako despuplatzea eta bestetik etxe zaharren uztea azkeneko urte hautan jaiotza askoren galtzea eragindu.

Ala eta ere, iritsi zaizkigun jaiotzei esker, ikertzaile honek ikusi ahal

izan du beste garaiko jaiotzak era bat ezberdinak zirela. Liburu honetan biltzen direnak hispaniar jaiotza sinbolokoen adierazgarriak dauzkate. Ez dute proportziorik errespetatzen ezta oraingoan arau historiakoak.

Karmeldar oinutsen San Jose komentuko jaiotza, Nafarroako zaharrena

“Nafarroa ez zen gelditu alde batera XVII. mendetik haurrera europan zehar eman zen jaiotzen zabalketan. Garai hartan noblezia, eta instituzio erlijiosoek saiatu ziren jaiotza gero eta elaboratuagoak erakusten” adierazi zuen Ricardo Fernándezek.

Lehendabiziko irudikapen tridimentsionalari buruz, ikertzaileak adierazi zuen XVII. mendekoa izan zela, Iruñeko Karmeldar oinutsen San Jose komentuan zeukatena. Beste aldetik hobekien kontserbatuta dagoen

jaiotza monumentala hiri berako
Agustindar errekoletoen komentuan
dago.

Era berean, jaiotza nabarmenak
altxatzen dira, XVIII bitrinetan eta
erakustokietan, baita ere egur
polikromatutako talde bat
Mendigorriako elizarako 1825an
Juan Jose Veraz irudigileari
enkargatua. Hain zuzen ere XIX.
Mendean talde hauek herrikoi
bihurtu ziren Espainia osoko
etxeetan. Nafarroan fama berezia
hartu zuten “barros murcianos”
deitzen zitzaienak.